

Hizlariak

José Felix Legorburu
Kirurgian Doktore

Urtza Errazti
Corporación Mutuaren Zuzendaria

SANITATEA

Foru bakoitzean gertatzen den bezala, honetan ere, gonbidatuen aurkezpenarekin hasi zen eta haien profilaren eta nortasunaren berezitasunak aurkeztu ziren. Batetik, Jose Félix Legorburu, laudioarregandikoa eta Durangon bizi dena, azken 15 urteotan Gurutzetako Ospitalearen kirurgia sailaren zuzendaria izan da eta, bestetik, Urtza Errazti, Jez enpresaren zuzendari orokorra eta Mutualiaren lehendakaria.



José Félix Legorburuk hitz egin zuen lehenbizi eta, ezer baino lehen, Laudioko Oroimen Kolektiboaren Berreskurapenaren lana biziki goraipatu zuen. Hala ere, bere harridura adierazi zuen hari zegokion gaiari eskainitako lerro laburrak ikustean. Uraren saneamendu eta hornikuntzaren atala oso ondo garatua egon arren, medikuntzaren inguruko gaiak ez dira ondo islatzen lan honetan. Horretarako, ibilbide kronologiko laburtua egin zuen zientzia honen garapen orokorrari buruz.

Laguntza medikoaren ikuspuntutik, XX. mendea bitan bana genezake: Laudio nekazaria eta Laudio industrialia. Laudio nekazarian laguntza medikoa familia-medikuan oinarritzen zen, edozertan trebea zena eta laguntza etxeratua eskaintzen zuena. Ospitaleak ez ziren gaur egungoen modukoak, orduan babes-etxe edo kirurgia zentroak besterik ez ziren, ez zeuden laguntza medikorako prestatuak. "Lotsagarria zen hauetako batean ingresatua egotea". Bokaziozko lana zen eta beti guardian egoteko konpromisoa zeukaten. Medikuen dedikazioa muga profesionalak gainditzen zituen. "Medikua pertsonai sakrosantutzat jotzen zuten, familia-aholkulari eta aitor-entzule".

Entzutea eta aintzat hartzea lanarekin bat zetozen.

Baina garapenak hau guztia aldatzen du: Orokorrean, industriaren ezarpena, honek dakarren inmigrazioa, komunikabideen garapena... direla eta. Eta zehatzago, unibertsitatearen zabalkuntza, aurkikuntza handiak, zientzian aplikazio berriak eta farmazia-industriaren garapena.

Aldaketa hauen ondorioz errealitate mediko berria sortzen da, hurrengo esaldiak ondo laburtzen du egoera berria: "Etxean jaio eta hil egitetik, ospitalean jaio eta hiltzera pasatu gara". Laguntza etxeratua desagertzen da eta ospitaleak sustatzen dira, lanbidearen espezializazioa bilatzen. Aldaketak bizkor ematen direla esan genezake, aldaketa hauek, orokorrean, positiboak izan arren, kontutan hartu behar dira horren positiboak ez diren eraginak: masifikazioak, inbertsonaltasuna, demandak eta nor bere burua babesteko neurriak.

Belaunaldi berriek krisialdia garaitzen dute bi arrazoi nagusiri esker: profesionaltasuna eta

prestakuntzaren gehitzea eta emakumearen etorrera: "medikuntza ikasleen 50%a baino gehiago emakumeak dira".

Oroimen Kolektiboaren ikuspuntutik, José Félixek argibide bat baino gehiago eman zigun burututako lana hobetzeko: medikuntzaren garapena aztertu, datuen eskaria errazten duen galdeketa sortu eta adituen laguntza eskatu zientziaren eta gaixotasunen garapena ezagutzeko.

Ondoren, Urtza Erraztik lan-osasunaren inguruko gaiak jorratu zituen. Euskal Herriko nekazaritza eremuetan, industrializazioa eta enpresen sorreraren ondorioz, aurreko kasurik gabeko zerbitzu medikuak sortu ziren: "askotan enpresa-medikua familia-medikua baino gertuago zegoen".

Lehenengo mutua duela 110 urte sortu zen "la Previsora" izenarekin. Aseguru-etxe bezala jaio zen, medikuntza eta osasun mundutik oso urrun. "Hasiera batean,



enpresariak sortzen dituzte istripuak galarazteko beharra dela eta, hobe esanda, istripua galarazi beharrean, hau sendatzeko". Beraz laguntza-zentzu propioak sortu zituzten. "Istripu kopurua eta laguntza medikoa desorekatuak zeuden".

67 urtetik aurrera, Estatuak esku hartzen du erakunde hauetan, dena den, kudeaketa euren esku jarraitzen du, sistemak zuzen gidatzen direla onartzen baitu. Ondoren, bigarren pausu handia ematen da: osasunaren zaingoa eta prebentzioa. Orduetik aurrera, lan-osasunaren erronkak ez dira sendaketan oinarrituko, prebentzioan baizik, istripuak eta gaixotasunak ekiditeko.

Publikoaren parte-hartzea

Hona hemen eztabaidak eman zituen ekarpen nagusiak:

-Botika industrialen eta homeopatiaren arteko zehaztasuna. Hautabidezko medikuntza homeopatikoa.

Gaur egungo botika naturatik dator, industria prozesuak hobetua. Dosiak homeopatian baino handiagoak dira, baina osagai aktiboa berdina da. Medikuntzan denak balio du, ez dago zertan sendagai bakarria erabili behar.

-Sendatzaileak eta etxeo sendabideak

Antzina "*saludador*" izeneko sendagileak etortzen ziren gaixoak sendatzeko. Ahurrek hoztura edota eztarriko mina zeukatenean, kaktus bat zulatzen zen eta honen zukua sendatzeko erabiltzen zen.

-Praktikantea

Praktikantea botika eta medikuaren artean mugitzen zen.

-Gaixotasun berriak: psikikoak

Gaixotasun psikikoen gaia tabu izan da betidanik. Jende asko ez dago gaixorik eta medikuarenera doa honek haxe bera berresteko. Aparatu psikikoak hauskortasunaren eta kanpo erasoen arabera oreka galtzen du. Pilar Isusik gaia oso gutxi jorratu zela aipatu zuen eta txosten bat idatzi du (bi zatitan argitaratua).

-Cáritas gizarte zerbitzua

Elizbarrutiko Cáritasek biziki lan egin du moralak, afektu ezak, ekonomiak, alkoholak eta bestelako gaitzek eragindako atsekabeak jasan dituzten pertsonak babesteko. Cáritasek, Udaletxeak eta hainbat medikuk buru-osasunerako zentroaren sorrera sustatu zuten.

-Ginekologia

Ginekologiaren garapena egundokoa izan da, bestelako espezialitateen hobekuntza ekarri baitu, erradiologia, endoskopia edota prebentzio neurriak besteak beste.

